



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

IKTak eta Konpetentzia Digitalak

Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan

Berezko Tituluko Proiektua

Hizkuntza Hezkidetzalea eta Sexista: Haur eta Lehen Hezkuntzako ipuinen azterketa, Hizkuntzaren Prozesamenduko tresnak erabiliz

Egilea

Eneritz Arrate García Arriola

Zuzendaria

Mikel Iruskieta




2017

Laburpena

Hurrei ipuinak irakurtzea edo kontatzea oso garrantzitsutzat jo izan da, baita hezkuntza formalean ere. Lan honetan ipuin tradizional sexistetan eta moderno hezkidetzailleetan erabiltzen den hizkuntza aztertu eta alderatu egin da, ipuinetako istorio eta roletan gertatu den aldaketa, hizkuntzan ere gertatu den aztertzeko. Corpus hori osatu da emakumezkoak eta gizonezkoak protagonistak dituzten ipuin tradizional eta moderno hezkidetzailleekin, eta bertan aztertu da emakumezko eta gizonezko protagonisten ekintzak eta deskribapenak egiteko hizkuntzaren erabilera. Horretarako, Haur eta Gazte Literaturaren ikerketa batzuetara hurbilpen teorikoa egin da eta Hizkuntza Prozesamenduaren (NLP) erremintek hizkuntzaren erabileraren ikerketan eskaintzen dituen aukerak aztertu dira. Horrela, ipuinetako hizkuntza erabileraren azterketarako metodo bat proposatuz.

Gako hitzak: ipuina, sexismoa, hezkidetzeta, hizkuntza, Hizkuntzaren Prozesamendua



Aurkibidea

Laburpena	1
Sarrera	3
Proiektuaren helburuak	4
Marko teorikoa	5
1. Ipuina: baliabide hezitzailea	6
2. Literatura: curricula eta curriculum ezkutua	8
3. Haur eta Gazte Literatura azterketaren ikerketa batzuk.....	12
4. Hizkuntza eta Literatura	13
Marko metodologikoa	17
1. Corpusa	18
2. Transkripzioak.....	20
3. Azterketarako tresnen eraketa	20
4. Datuen hautaketa eta analisisa	20
Aztergaiak.....	20
Emaizak	23
Ondorioak	31
Bibliografia	33
Eranskinak	35
1. Eranskina: Ipuinen corpusa	35
2. Eranskina: Aditz eta adjektiboen zerrenda sexista.....	40

1.KAPITULUA

Sarrera

Ipuinek hurrek istorioez disfrutatzen duten bitartean, gauza desberdinak ikastea ahalbidetzen dute. Beraz, ipuinak helburu desberdinekin erabil daitezkeen baliabideak dira: ipuinekin irakurtzen eta entzuten ikasi, emozioak eta sentimenduak identifikatu eta interpretatu, irudimena landu, eta abarretarako erabil daitezke. Baina, zer gertatzen da ipuinek emakumezko eta gizonezkoen irudi desorekatua transmititzen dutenean? Nola identifika dezakegu hori, ipuin batek balore sexistak igortzen dituela?

Ipuinek transmititzen dituzten ideiak analizatu behar dira bat datozen hizkuntzan, irudietan eta bien artean loturan (irudien eta hizkuntzarenean, alegia). Lan honetan, Haur eta Lehen Hezkuntzako umeentzat diren zenbait ipuin tradizional eta moderno hezkidetzailleetan erabiltzen den hizkuntzaren azterketa egingo da, zehazki ipuin mota batetik bestera hiztegian aldaketarik gertatu den jakiteko eta ipuin mota bi horien arteko alderaketak egiteko.

Horretarako, lan honetan hurrengo atalak landuko dira:

1. Proiektuaren helburuak: atal honetan proiektua garatzearen helburua eta honen justifikazioa azaltzen da.
2. Marko teorikoa: ipuinen balio hezitzailearen hurbilpen teorikoa egin da. Honetan, aztertuko da literatura curriculumean, haur eta gazte literaturari buruzko ikerketa batzuk eta Hizkuntzaren Prozesamenduaren erremintek hizkuntzaren azterketarako eskaintzen dituzten aukerak.
3. Marko metodologikoa: beste atal honetan, ipuinekin osaturiko corpusaren hizkuntza analizatzeko jarraituko diren urratsak ezarri dira.
4. Ipuinen analisia: ipuinen azterketan aztertutako ezaugarrien identifikazioa eta interpretazioak biltzen du.
5. Ondorioak: hautatutako ipuin tradizional eta modernoetan erabilitako hizkuntzaren erabilera sexista edo hezkidetzaillearen azterketarako jasotako emaitzak eta ondorioak biltzen dira.

2.KAPITULUA

Proiektuaren helburuak

Ipuinetan erabiltzen den hizkuntza aztertzeke xedearekin, Haur eta Lehen Hezkuntzako umeentzat diren ipuinetara mugatuko gara IKTak eta Konpetentzia Digitalak garatzeko HEZik-ko Berezko Tituluko proiektu honetan. Ikerkuntzazko proiektu honen helburua hurrengo hau da:

- Ipuin tradizional sexistetan eta moderno hezkidatzaileetan erabiltzen den hizkuntza aztertzea eta beraien artean alderaketak egitea, ipuinetako istorio eta roletan egindako aldaketa ipuinean erabilitako hizkuntzan (batez ere hiztegian) ere gertatu den aztertzeke eta halakorik gertatu bada, aldaketa horren ezaugarriak zehazteke.

Horrela, hizkuntzaren erabileran aldaketarik gertatu den analizatzeko, emakumezko eta gizonezko protagonistak dituzten ipuin tradizionalen eta modernoen bost ipuin hautatu dira emakumezkoen eta gizonezkoen ekintzen eta deskribapenen azterketa eta alderaketa egiteke.

3.KAPITULUA

Marko teorikoa

Emakumeak eta gizonak legez eskubide berdinak ditugun arren, jaiotzetik alua edo zakila (edo biak) izateak, gure jokabide, janzkera, harreman, jarrera konkretuak, izatera behartuta sentitzen gara askotan, jendartean historikoki ezarrita dagoen patroia eta gure sexu-organoen arabera beste norbaitzuek ezarritako espektatibak bete ditzagun. Txikitatik haurrei sexu-organoen arabera egozten zaizkien ezaugarriak jendarteak hala nola barneratu eta onartu egiten ditu, aldaezinak edo ezaugarri genetikoak izango balira moduan. Neskei belarritakoak, etxea edota familia zaintzeko ardura, *neskentzat diren* orgatxo eta panpina bezalako jostailuak, arrosa koloreko gauzak ematen zaizkie. Eta mutilei, berriz, urdin kolorea eta ofizioekin edo erremintekin nahiz arriskuarekin edo kotxeekin lotutako jostailuak ematen zaizkie.

Ezin uka daiteke (berdintzen gaituzten ezaugarriak gehiago eta esanguratsuagoak badira ere) emakumezkoak eta gizonezkoak desberdinak garela. Emakumeen eta gizonen sexu desberdintasun honek nahastea dakar sexuaren arabera pertsonen rol eta ezaugarri batzuk ezartzean, hau da, sexu eta generoa kontzeptuak nahastean. Sexua da emakumeak eta gizonak desberdintasun anatomikoa. Generoa, berriz, jendarteak sexuaren arabera emakume edo gizon bati egozten dion ezaugarria da. Egia da, azken hamarkadetan generoari dagokionez, aldaketak egon direla, baina oraindik ere asko hausnartu eta aldatu beharra dago, nire ustez.

Horren erakusgarri da Emakundek Hezkuntza-sisteman hezkidetzat eta genero-indarkeriaren prebentzioa plana burutzeko azterlanean lortutako emaitzak¹. Honetan Batxilergoko 2. mailako ikasleengan goi-mailako prestakuntza hautatzerakoan genero-

¹ Emakundek EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren baitan egindako azterlanaren informazio gehiagorako: <http://emakunde.blog.euskadi.eus/eu/2016/06/neskek-eta-mutilek-ez-dute-antzematen-genero-estereotipoek-goi-mailako-ikasketen-aukeraketan-duen-eragina-emakunderen-ikerlan-baten-arabera/>
Berdintasunaren Balioak duen Eragina Euskadiko Batxilergoko 2. urteko Ikasleek Goi-Mailako Ikasketak Hautatzerakoan azterlana, hurrengo helbidean eskuragarri dago: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde/adjuntos/txostena.36.berdintasuna_batxilergoa.pdf

estereotipoek eraginik ez dutela eta ikasle horiek hautaketa gustuen arabera egiten dutela dioten arren, ikerketan ondorioztatu da "«emakumea-andereñoa-medikua» eta «gizona-ingeniaria-teknikaria» ereduak nagusi direla. Emakumeek gizonak baino neurri handiagoan aukeratzen dituzte Osasun zientziak, Arte eta Giza zientziak eta Gizarte eta Zuzenbide zientziak. Kontrara, gizonak gehiago aukeratzen dituzte Ingeniaritza eta Arkitektura alorrekoak (matrikula egindakoen % 70 baino gehiago gizonak dira)". Ikerketak egiaztatu du ofizio horietan neskentzat lan arloko oztopoak mutilentzat baino nabariagoak direla ere. Izan ere, Batxilergoko 2. mailako emakumeen % 70ak uste du ez dituztela lan-baldintza berdinak. Aitzitik, mutilen kasuan erdiak bakarrik baino ez du horrelakorik pentsatzen. Beraz, aldea badago neska-mutilek pentsatzen duten moduan ere.

Gai horiek ikertzen ditugunean, uste horietan murgilduta, zaila da askotan arazoaz ohartzea eta uste dena zalantzan jartzea. Horretarako, ezinbestekoa da uste horietatik urruntzea, aztertu nahi duguna objektibotasunez analizatzeko.

Nahiz eta edozein arlotan gure jarduna aztertzea garrantzitsua izan, irakaskuntzan are inportantzia gehiago dauka. Ikastetxeetan umetxoekin ari gara eta umeei erakusten badiegu emakumea dela printze salbatzaile eta arazo konpontzailearen zain dagoen pertsona pasiboa eta gizona ekintza eta boterea duena, nola edo hala rol horiek sinetsiko eta erreproduzituko dituzte.

Modu honetan, txiki-txikitatik haurrek ikasteko edota gozatzeko erabiltzen dituzten baliabideen analisia egitea ezinbestekoa da. Ikasgeletan aurki daitezkeen baliabide didaktikoen artean, nire ustez literatura da nagusi; izan ere, irakasgai desberdinetan irakurtzen dira ipuinak, etxetik ekarritakoak eta gelako liburutegia osatzen dituzten ipuinak.

1. Ipuina: baliabide hezitzailea

Ipuinak bere jatorritik erabili dira aisialdian disfrutatzeke, garai bakoitzaren errealitatea ulertzeko, eta nozioak eta kontzeptuak transmititzeko. Haur eta Gazte Literaturak jendarte-existentziaren orientazio eta planifikazio mekanismoak eskaintzen ditu. Literatura obratuko edukiekin ideia, arau eta sinesmen batzuk aurkezten zaizkie irakurleei eta irakurleek eduki horiek modu batean edo bestean asimilatzen badituzte, nolabait haien bizitza sozialean eta pribatuan eragina izango dute (De Sousa, 2012).

Ezin uka dezakegu umeei ikusten dutena, hau da, inplizituki ere erakusten zaiona, ikasi eta errepikatzeke joera dutela. Horren erakusgarri da Australiako

NAPCAN elkarteak² 2013. urtean "*Children see. Children do. Make your influence positive*" bideoaren bidez gogorarazi ziguna. Eta frogatu ez den arren, ipuinek ikaslearen jarrera baldintzatzen dute eta jendartearen ezarritako dauden patrioiak sendotzen lagun dezakete.

Ipuina, beraz, sozializazio baliabidea da eta istorio eta gozamen tartea eskaintzeaz gain, inplizituki edo esplizituki jendartearen ideiak, balioak, jarduerak, itxaropenak eta sinesmenak ere ipuinarekin daramatza. Eskolan, ipuinak ere sozializatorako baliabide didaktikotzat hartu dira askotan, horien bidez errealitatea ulertzeko baliabideak eskaintzen dituztelako (Colomer, 2001). Modu horretan, umeei ipuinen bidez errealitatean jarduteko adibideak eskaintzen zaizkie. Badago esate baterako, ipuinak irakurri eta entzuteko aukera ematen duen SormenApp³ aplikazioa. Ipuin aplikazio horrek ipuina irakurri eta entzun daitekeen arren, tresna horren berezitasuna da ipuin bidez landu nahi den balorea hautatu daitekeela. Izan ere, ipuinak honako ezaugarrien eta baloreen arabera antolatzen dira: laguntasuna, berdintasuna, erantzukizuna, konfiantza eta elkarkidetasuna.

Horrez gain, ipuinaren ahalmenak sozializazio eta errealitatearen ulerpenetik haratago doaz. Garralónen (2004: 91) hitzetan, "ipuin baten irakurketaren ondoren, bere mezuak idatzitako hitzen mugetatik harago garamatza; gure sentimenduetara hurbiltzen da, ahaztutako egonezinak pizten ditu eta batzuetan, ekintza, eta beste askotan, elkarrizketa eta gogoeta pertsonala estimulatzen ditu. Haur eta Gazte Literaturan mezu hauek irakurlearen eraketa pertsonal eta intelektualerako beste ekarpen bat dira".⁴ Beraz, ipuinek eragin eragiten dute, bai onerako, bai txarrerako, irakurleei edo entzuleei (ipuin kontaktetan bagabiltza) balore desagokiak helarazi diezazkieketelako (nahi gabe ere), baita *barruak nahasi* eta hausnarrarazi ere. Gauzak horrela, ezin diezaiokegu uka –nire ustez– ipuinari duen baliagarritasun eta eragin didaktikoa; izan ere, ipuin egokiak hautatzen badira, baliabide didaktiko aberasgarriak izan daitezke, gure helburuak lantzeko eta agian betetzeko ere bai.

² NAPCAN elkarte (National Association for Prevention of Child Abuse and Neglect) umeen heziketan beti modu positiboan eragiten ez dugula kontzientzia hartzen laguntzen duen Australiako elkarte da. Informazio gehiagorako ikus: <http://napcan.org.au/>.

³ SormenApp ipuin aplikazioaren informazio gehiagorako ikus: <http://sustatu.eus/ekintech/1485357005>.

⁴ Aipamena jatorrizko hizkuntzan: "Después de la lectura de un libro su mensaje nos lleva más allá de las fronteras de la palabra escrita; se acerca a nuestros sentimientos, despierta inquietudes olvidadas y estimula, unas veces la acción y, la mayoría, el diálogo y la reflexión personal. En la literatura infantil y juvenil estos mensajes son un aporte más en la formación personal e intelectual del lector" (Garralón: 2004).

2. Literatura: curriculuma eta curriculum ezkutua

Heziberri 2016ko Haur Hezkuntzako 237/2015 curriculum Dekretuko⁵ Oinarrizko kompetentzia espezifikoaren arabera, *Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia* atalean Haur Hezkuntzako etapan umeak literatura aztertzen hasiko dira literaturaren adierazpen xumeetara gerturatuz eta, literatura-testu errazak entzunez zein literatura-testuen moldaketekin plazer eta bizipen gozagarriak eraginez.

Hurrengo etapari dagokionez, Derrigorrezko Lehen Hezkuntza hain zuzen ere, Oinarrizko Hezkuntzarako curriculum Dekretuan *Hizkuntza- eta Literatura-Komunikaziorako Konpetenziaren Euskara eta Literatura, eta Gaztelania eta Literaturan* etapako helburuen artean umeek honako hau eskuratu behar dute: "Hainbat generotako literatura-testuak irakurtzea eta entzutea, eta, hala, literaturaz gozaten ikastea, horrek sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko, norberaren hizkuntza-ondarea aberasteko eta identitate kulturala eraikitzeke aukera ematen duen aldetik" (Eusko Jaurlaritza, 2015: 152)⁶.

Egia da, haurren hezkuntzan eragile desberdinek parte hartzen dutela, eragile sozialak, familia- eta ikastetxe-eragileak, hain zuzen ere. Hala ere, 236/2015 eta 237/2015 Dekretuetan ikus daitekeenez, literatura hezkuntza formalaren hasiera-hasieratik umeen heziketako osagaia da. Horregatik, ipuinen hautaketa ez da arinkiaz egin beharreko ekintza. Bertan lantzen diren eta transmititu daitezken nozio eta kontzeptuak aztertu beharra dago, bai hizkuntzaren aldetik, bai ilustrazioei dagokienez ere.

Haur eta Gazte Literaturan argitaratutako lanengatik bereziki ezaguna den Zubizarretak elkarrizketa batean adierazten duenez, batzuetan inkontzientek noizbehinka huts egiten dio (Almagia, 2009) eta bai neska, bai mutil protagonistekin arketipoak⁷ agertzen zaizkio, horiek saihesten saiatzen den arren.

Egaña idazleak bere aldetik, Almagiak egindako elkarrizketan, ere arketipoak saihestea ezinbestekotzat jotzen du eta esaten du bere istorioetan arketipoak apurtzen dituela istorioen emakume edo neska asko mugak apurtzeko gai direlako eta edozein

⁵ Informazio gehiagorako jo Haur Hezkuntzako curriculum Dekretu iturrira: [237/2015 Dekretua](#), abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko (EHAA, 2016-01-15).

⁶ Informazio gehiagorako jo Lehen Hezkuntzako curriculum Dekretu iturrira: [236/2015 Dekretua](#), abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15).

⁷ Arketipoa ezarritako patroiekin bat ez datorren pertsonaia da bestelako ezaugarriak gehitzen zaizkiolako. Modu honetan, pertsonaia horrekiko izan genitzakeen estereotipoak hausten dira. Arketipoen adibideak dira gizonezkoen sorgin pertsonaiak edo bihotz oneko emakumezko sorginak. Esate baterako, Shrek ogroa edo Mounstros, S. A. filmeen protagonistak arketipoak dira, hauek ogroa eta munstroak izateagatik aurretiaz ezarritako ezaugarriak (maltzurak eta beldurgarriak izatea) hausten dituztelako, dibertigarriak eta bihotz onekoak izanez.

abenturaren motor aktiboa izan daitezkeelako. Aitzitik, Egaña idazleak (Almagia, 2009: 20) aipatzen du: "nolanahi ere, idazkiak *gure* balioez zein erreduez beteta daude. Kontua ez da ideologia zehatza edo errebindikazio mezua transmititzea; pentsamoldea, ikuspuntuak, kezkak, konpromisoak... subjektibotasunean erroturik daudenez, era naturalean azaleratzen dira ekoizten dugun testuetan".

Ipuin sortzaileek istorioen bidez ideia zehatzak transmititzeko helburu ez duten arren, idazleak ere jendartearen partaide dira eta beraiek ere baldintzatuta daude. Azken finean, nahiz eta jarrera kritikoa izan, komunitate batean heziak izan dira, jendarte zehatz baten ohitura, pentsamolde, ideia, ekite-eredu eta abarretan murgilduta eta hori nabaritzen da han ez bada hemen.

Gabiriak (2009: 13) dio istorioen atzean idazlea dagoela, eta kontziente edo inkontzienteki, jendarteaz baldintzaturik, kontatzen duenaren bidez, mezua (edozein izanda ere) igortzen duela:

"(...) literatura ez da gauza inozentea: istorioen atzean idazlea dago, burmuin gizarteratu bat, nahita edo nahi gabe mezu bat igortzen ari den pertsona bat. Helduen literaturan, beharbada, ez ginatke kontu hauei buruz hitz egiten egongo, baina haur literaturan denak dauka beste dimentsio bat, haurrak berez *irensten* dituelako kanpotik heltzen zaizkion mezuak".

Azken finean, hurrek guztia barneratzeko eta sinesteko arriskua dute, helduek garatu duten pentsamendu kritikorik edota esperientziarik ez dutelako. Hori dela eta, kontu handiz ibili behar gara umeen eta nerabeen ipuinek dakartenarekin.

Literatura gauza inozoa ez den usteari garrantzi handia ematen dio Imaz Quijerak (2009: 22) ere:

"Premiazkoa da ipuinak kontakizun hutsak ez direla ohartzea; baloreak transmititu eta hezi egiten dute gure asmoen esker, asmoak direnak direla ere. (...) Bizitarako aholku zehatz eta ederrez beteriko ipuinez inguratu gaituzte. Batetik, iritsi zaizkigunak bertsio zentsuratu edo pentsamendu agintariak moldaturiko barne mezuaz izan dira. Bestetik, gaur egungo ipuinetan printzesa eta dragoirik agertzen ez den arren, zentsura honek ez ditu kontakizunak ezaugarri sexistetatik libratzen".

Egun arbasoengandik jarauntsita iritzi zaizkigun ipuin klasiko asko (Eduarne Zuri, Erpurutxo, Mari Errauskin, Berunezko soldadutxoa, besteak beste) haurrei irakurtzen dizkiegu oraindik ere. Baina, horiek berridatziak eta moldatuak izan diren arren, idatzitako garaiaren ideien transmisio eta ezaugarriak betetzen dituzte eta, beraz, egungo umeen heziketarako desegokiak dira, umei balore sexistak transmititzen dizkietelako.

Egia da, umeek egunerokotasunean esperimentatzen dutela bizipenen bidez eta horrela ezagutza (sexista ala ez) eraiki dezaketela, baina egia ere bada Van Dijkek (2002: 10) dioen honako hau: "(...) etxean egiten den irakurketa eta diskurtso publikoen entzumena beranduago erabiliko den diskurtsoaren eraketan erabiliko diren ezagutzen jabekuntza egiten dela⁸".

Hori dela eta, ezinbestean erabiltzen ditugun ipuinen ezaugarriak zehatz-mehatz aztertu behar ditugu, haurrek ikasiko dutena benetan proposatutako asmoen artean egon daitezen eta martxoaren 22ko 3/2007 lege organikoak⁹, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako araudiak 24. artikuluko b atalean ezartzen duena bete dadin: "Jokabide nahiz eduki sexistak eta emakumeen eta gizonen artean bereizkeria sortzen duten estereotipoak ezabatzea eta ezestea, batez ere, testu-liburuetan eta hezkuntza materialetan". Baina, batzuetan, kontzeptu sexistak agerian edo begi-bistan ezin ikus daitezke. Honen erakusgarria da Van Dijkek erabilitako izozmendiaren azalpenezko adibidea: "diskurtsoa izozmendiaren tontorra bezalakoa da: bere esanahiaren zati handiena ezkutatuta dago (inplizitua) eta ez du testuak esplizituki esaten".¹⁰

Horretarako, curriculum ofiziala ez ezik, implizituki umeei ikasgarri diezaiekegun ezagutza, balio eta jarrerak ere kritikoki aztertu behar ditugu, hau da, curriculum ezkutua¹¹. Eguneroko jarduna kritikotasunez aztertzea ez da baina zeregin erraza, ohikotasunak ez gaituelako harrizten edo bere aurka jartzen (aurretiaz jarrera bat landu ez bada). Esate baterako, Haur Hezkuntzan umeak zenbakiak ikasten has daitezen goizeko errutinetan arduradunak klasera etorri diren ikasleak zenbatu egiten ditu. Horrez gain, irakasle askok zenbakiak praktikatzeko jarraitzeko xedez ikasle kopurua sexuaren arabera berriro kontrazten diote arduradunari. Jarduera hauekin zenbakiez aparte pertsonak bi azpimultzotan sailkatzen direla erakusten zaie: emakumezkoak eta gizonezkoak. Matematika lantzeko bestelako galderak egin daitezke, esaterako zenbatek ekarri duten ipuina edo jostailuak; zenbat egongo dira idazmen, sukaldetxo

⁸ Aipamena jatorrizko hizkuntzan: "(...) la lectura en casa y la escucha de los discursos públicos es precisamente adquirir mucho del conocimiento que más tarde será utilizado en la elaboración del discurso" (Van Dijk, 2002: 10).

⁹ Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 lege organikoaren inguruko informazio gehiagorako hurrengo helbidera joan: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-6115>

¹⁰ Aipamena jatorrizko hizkuntzan: "Un discurso es como la punta del iceberg: la mayor parte de su significado está escondido (implícito) y no es explícitamente dicho por el texto" (Van Dijk, 2002: 21).

¹¹ Ikasleek ikastetxean haren estilo, antolakuntza, funtzionamendu, ohitura, aztura, harreman eta abarren bidez egiten dituen ikaskuntza ez-esplizituak (arautu gabekoak, berariazkoak edo programatuak). (...) Jakintzat, implizituztat, «normaltzat» jotzen dena. Genero-ikuspegitik aztertuta, genero-estereotipo tradizionalak erreproduzitzen eta iraunarazten dituzten balioak eta portaerak izaten dira maiz (Eusko Jauriaritza, 2016: 93).

Informazio gehiagorako joan jatorrizko dokumentuaren helbide honetara: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-613/en/contenidos/enlace/ep/eu_evalua/adjuntos/fof.pdf

edo eraikuntzen txokoan; zenbatek dute amantala berdea, urdina, arrosa, besteak beste, galdetzea agian egokiagoa da, erantzuna ez bada sexista izango.

Modu egokian jardunez, ez ditugu inkontzienteki jendarteak ikasgarri dizkigun balioak birproduzitu eta ez diegu haurrei sexuaren arabera itxaropen zehatzik esleituko, ezta genero-baldintzarik inposatuko ere. Irakurtzen eta kontatzen ditugun ipuinek balore egokiak izan behar dituzte, batez ere haurrei buruz ari garenean.

Izan ere, urteak dira ipuinen bidez balore zuzenak transmititzearen ikuspegi berri honek ipuin mota berriak sortzea ekarri zuen: Ipuin Didaktikoa edo Hezitzailea. Hauen adibide argiak dira *Ama*¹², *Zakila duten neska*¹³ eta *Mundua guztiontzat izan beharko luke*¹⁴ komikia. Hezkidetzan oinarritutako ipuin didaktikoen jatorriaz Orquínek (1989) dio 1975an Unescok Emakumearen Nazioarteko Urtea izan zela urte erabakigarria eta ordutik aurrera hainbat ekimen abian jarri zirela. Eta horietako bat neskei liburuaren bidez arketipo femenino berriak zituzten liburuak erradikalki desberdinak eskaintzea izan zen, emakumezko irakurleak bestelako perfil batzuekin identifika zezan bere burua. Hala ere, ez da ahaztu behar, hezkidetzak lantzeko ipuinak ez direla bakarrik neskek eredu femeninoak izateko, mutilek ere eredu maskulino berrien beharra dute eta mota horretako ipuinek ere garrantzia dute, bai mutilentzat, bai neskentzat.

Modu honetan, ipuin didaktikoetan ipuina disfrutatzeko erreminta izatea eta ipuinaren ezaugarriak *bigarren maila batera* pasatzen dira, ipuin horietan, batez ere, ipuinaren mezuak garrantzia hartzen duelako. Gauzak horrela, ipuin didaktikoak hizkuntza zaindua, balio hezitzaile zuzena eta egokia izatearen helburupean sortzen dira.

Hala ere, galde diezaiokegu geure buruari ea aproposa al den ipuin didaktiko hezkidetzailen umeak bizi diren errealitatea eta eguneroko munduan esperimendatzen dituzten gauzak saihestea edo errealitatean zailtasunez aurkituko dituzten ereduak ematea? Edo hobe den ipuin sexistetatik jendartearen normaltzat hartzen diren balioak identifikatzea, zalantzan jartzea eta berreraikitzen saiatzea?

Nire ustez, bai ipuin didaktikoak zein irudi sexistak aurki daitezkeen ipuinak baliagarriak izan daitezke hauen erabilpena helburu zehatz batekin egiten bada. Hau da, ipuin didaktikoen kasuan, batzuetan istorio gidatuegiak izateko arriskua dagoen arren, haurrek jarrera edo eduki zehatz bat ikas dezaten edo gai konkretu bat lantzeko

¹² Senide hurbil baten heriotza lantzeko Zubeldiak 2006. urtean idatzitako ipuin baliagarria.

¹³ Chrysallis Euskal Herria Elkarteak identitatea eta gorputzari buruzko oinarriko ezagutza lantzearen helburupean argitaratutako *Zakila duten neska* ipuina hurrengo webgunean eskuragarri dago: http://chrysalliseh.eus/Material/ikasmateriala_eus.pdf

¹⁴ Mundua guztiontzat izan beharko luke komikia Irrien lagunen aldizkarian argitaratzen den Ane pirataren istorioa da. Hurrengo webgunean eskuragarri dago: http://chrysalliseh.eus/Material/komikia_IRRIA53.pdf

helburuarekin erabil daitezke. Irudi sexistak dituzten ipuinei dagokienez, ordea, horiek ere erabilgarriak izan daitezke, baldin eta irudi edo rol horiek aztertzeko eta horiei buruz hausnartzeko erabiltzen badira. Hala ere, ezin ahaz daiteke hezkidetzaren gaia ipuin didaktiko eta irudi sexistak dituzten ipuinetan ez ezik, inkontzienteki balio hezitzaile egokiak dituzten ipuinen bidez ere lantzen direla.

3. Haur eta Gazte Literatura azterketaren ikerketa batzuk

1971. urtean Princetown Unibertsitateko irakasle-talde batek umeentzako hamabost ipuin bilduma analizatu zituen eta 881 ipuinetan gizonak protagonistak ziren bitartean, bakarrik 334 ipuinetan emakumeak ziren, hau da, bakarrik bildumen % 28,66a. Gainera, bilduma horiek gizonaizkoak menperatzaileak eta emakumezkoak izaera pasiboa zutelako transmititzen zuten (Orquín, 1989).

Egun haur eta gazte literaturan ildo bereko ikerketak egin dira. Gabiriak (2009) 2001. urtean argitaratutako euskarazko haur liburuen 300 pertsonaia aztertu zituen sexu, jardura eta izaeraren arabera. Aztertutako pertsonaien % 68,57 mutil argiak, bizkorrak, inteligentek, erabakiak hartzeko abilezia zutenak eta bihurriak ziren. Pertsonaia femeninoei (protagonistak eta ez-protagonistak) dagokionez, abenturazaleak ia herena dira, % 18,75 idealistak edo ameslariak eta beste % 18,75 maitasunaren arloko erabakiak hartzen dituztenak ziren. Aitzitik, ipuinetako une garrantzitsuetan mutila zen zer egin erabakitzen zituena, nesken jarrera, ordea, zalantzarena eta beldurrarena zen bitartean.

Ikus daitekeenez, haur literaturan emakumearen eta gizonaren irudi desorekatuak aurkitzen dira. Vintrók (2008) ere adierazten du emakumeek "*galduak sentitu*", "*arazoak konpontzen lagundu*" eta "*mundua den moduan onartzen ikasi*" behar duten bitartean, gizonak "*garaitzen*", "*irtenbideak ateratzen*" eta "*aurkitzen*" dituztela. Hala ere, emakumezko eta gizonaizko helduen pertsonaietan ez ezik, pertsonaia gazteetan ere berdin gertatzen da, zeinetan neskek "*inozoak*", "*beldurtiak*", eta "*pasiboak*" izateaz gain, neskei mutilei baino gehiago debekatzen eta exijitzen zaien. Eta rol hori betetzen ez dutenean, hau da, aktiboak eta autonomoak direnean, jendartetik baztertuak izaten dira. Esate baterako, Pipi Kaltzaluzeko. Mutilen kasuan, "*adoretsuak*", "*intuitiboak*" eta "*iraultzaileak*" dira eta gurasoen babesa eta onarpena jasotzen dute.

Gabiriak (2009) egindako beste ikerketa batean, jendarte rola aztertzeko helburuarekin, haurrei istorio bat kontatzeko eskatu zitzaizkien pertsonaien sexu, lanbide, jokabide edo bestelako ezaugarriei buruz ezer esan gabe, soilik ipuinaren hasiera eman zitzaizkien, honakoa, hain zuzen ere: itsasontzia urperatuta, uharte batera heltzen

ziren pertsonaia batzuen istorioa kontatzea. Ikerketa horretan lortutako emaitzak honakoak izan ziren:

1. Umeez idatzitako istorioen protagonistak 45 gizonezko eta 5 emakumezko izan ziren.
2. Mutilek idatzitako istorioetan ez zuten emakumezkoak jarri eta neskek idatzitako istorioen protagonisten % 62,5 gizonezkoa jarri zuten.
3. Gizonezko pertsonaiei jarritako rolen artean borroka zaleak ziren nagusi, abenturan garaile izateko eta emakumezko protagonisten zeregin nagusia, berriz, maitasuna, ezkontza eta haurrak izatea izan zen.

Vintrók (2008) ere literaturan gizonezkoen kopurua eta protagonismoa nagusia dela adierazten du, batez ere, fikziozko gazte literaturan, non abenturetan erabakiak hartzea, arazoei aurre egitea eta ekintza nagusia abiaraztea den.

2011-2012 ikasturtean Lasartek (2013) egindako ikerketan 11 eta 12 urteko umeez irakurtzen dituzten liburuak abenturazkoak direla jabetu zen, baita ere eskolan egiten diren irakurketen % 85,5. Beraz, Lasarte (2013: 15) ohartu zen ikerketaren emaitzetan pertsonaia maskulinoak eskolan zein etxean nagusitasuna dutela eta, horrez gain, datu interesgarri hau nabarmendu zuen emakumezkoen kasuan:

"(...) neskek eskolan nagusiki literatur pertsonaia maskulinoak irakurtzen dituzte % 15.3an eta emakumezko literatur pertsonaiak % 9.5ean. Baina etxerako irakurketetan hau aldatu egiten da, nesken etxeko irakurketa hauetako literatur pertsonaia femeninoa % 13.9an azaltzen da eta % gizonezkoa 5.8an. Ez horrela galdetutako mutilen irakurketetan, izan ere, eskolan nahiz etxean egindako irakurketa hauetako literatur pertsonaia protagonistaren nagusitasuna begi bistakoa da".

Orobat, Haur eta Gazte Literaturan *neskentzat* sortutako liburuak *chick lit* korrante edo fenomenoaren eraginaz ohartarazten gaituzte Olidek (2008) eta Colomerrek eta Olidek (2016). Lan horietan 10 eta 15 urte bitarteko neskentzako liburu arrakastatsuenak aztertu ondoren, liburu horiek estereotipo femeninoak iraunarazten zituztela ondorioztatu zuten. Modu honetan, Orquínek (1989) garaiko ipuinetan emakumeak deskribatzeko erabiltzen ziren *edertasuna*, *ontasuna* eta *pasibotasuna* ez daude ipuin klasikoetan soilik. Eta emakumeak egungo literaturan espazio pribatuan egotera mugatuta egon ez arren, balore sexistak antzeman daitezke, horrelako jendarte bizi garelako.

4. Hizkuntza eta Literatura

Ipuinetako pertsonaien sexua, ezaugarriak eta jokaeraz gain, hizkuntza ere kontuan hartu beharreko alderdia da, hizkuntzaren azterketaren bidez pertsonaien rola

definitzen dituzten deskribapenetan eta aurrera eramaten dituzten ekintzetan maiz ikusten ez ditugunak, hizkuntzarekin adierazita ikus ditzakegulako.

Horretarako, ipuinetako hizkuntzaren azterketa egiteko hizkuntzaren prozesamendua egitea aipatzen da, ipuin multzoa edo corpusa badugu. Hizkuntzaren prozesamendua¹⁵, ingelesez NLP *Natural Language Processing*, ahozko zein idatzizko komunikazioaren ezaugarriak modu automatikoan deskribatzen duen diziplina da. Gauzak horrela, Hizkuntzaren Prozesamendua hainbat arlotan aplikatzea ahalbidetzen duenez, ipuinetako hizkuntza prozesatuz ipuinetan erabiltzen den hizkuntzaren ezaugarriak objetibotasunez eta modu errazean deskribatzeko aukera ematen digu. Horren erakusgarri adierazgarria da Villagas et al.en (2012) *Using Language Resources in Humanities research* lana non Hizkuntzaren Prozesamendua eskaintzen dituen erremintez baliaturik 79.611 egunkari izenburu analizatu zituzten. Hauetan, albisteak nori buruz hitz egiten zuen eta zein terminotan identifikatzeko helburuarekin, albistearen egilea eta iturria; albistearen protagonistak (emakumezkoak edo gizonezkoak ziren); eta albistearen gertalekua identifikatzen ziren. Eta, Hizkuntza Prozesamendua eskaintzen dituen erremintei esker, hurrengo emaitzak jaso ziren:

"The research concluded that the Spanish press, especially the press considered *serious*, has ossified into a male-centered view that expels citizens as active protagonists from public debate. According to the authors, the so called general press does not take into account the whole population. On the contrary, general press reduces its attention and preference to a portion of the population: adult males from dominant classes and people that act on the stage of power, and excludes the remaining women and men as if their contributions were insignificant for social functioning" (Villagas, et al., 2012: 3284).

Hizkuntzaren Prozesamendua eskaintzen dituen erremintez baliatu gabe, ezinezkoa zatekeen informazio hori guztia era erraz batean biltzea eta analizatzea. Hala ere, ikerketan jasotako ondorioen artean, Hizkuntzaren Prozesamendua baliabideez hurrengo adierazten zuten (Villagas, et al., 2012: 3287): "The language resources that have been developed within the field of Natural Language Processing have proven to be useful for other disciplines that are unaware of their existence and nevertheless would greatly benefit from them".

Hala ere, ahaleginak egin behar dira Hizkuntzaren Prozesamenduan astunak diren prozesuak automatizatzeko eta errazteko, ikerketa arlo anitzen aplikaziorako, eta baita ikerketa arlo desberdinen arteko komunikazio eta beharrak transmititzeko ere:

¹⁵ Hizkuntza edo Lengoia Naturalaren Prozesamendua honela definitzen da Sareko Euskal Gramatika webgunean (SEG):

"Hizkuntzaren tratamendu automatikoaren inguruko ikerrarloari Lengoia Naturalaren Prozesamendua (LNP) esaten zaio, eta, batez ere, erabiliko diren teknika informatikoei erreparatzen die: ezagutza linguistikoa nola adierazi konputagailuan, nola erabili ezagutza hori (algoritmoak, estrategiak, inferentziak sortzeko metodoak, etab.), nola uztartu programetan ezagutza linguistikoa eta hizketa-gaiari dagokion ezagutza, nola banatu tratamendu linguistiko osoa modulu sinpleago eta independentetan horietako bakoitza egingarriagoa izan dadin."

Informazio gehiagorako hurrengo helbide honetara jo: <http://www.ehu.eus/seg/hizk/1/1/sak>.

"A common effort has to be made to create the necessary synergies to allow researchers from other disciplines to use NLP tools. A mutual understanding of the real needs of these researchers and the applications available to fulfil them is still needed. NLP tools allow automating processes that were manually carried out in the past. (...) NLP tools have interesting results, help us in boring tasks and allow automating analyses but they work on plain textual data" (Villagas, et al., 2012: 3287).

Besteak beste, erabakigarria da Hizkuntzaren Prozesamenduak eskaintzen duen hizkuntzaren azterketa objektiboa, ipuinen azterketa egiteko, erremintak (ondo diseinatuta) adina, erlijioa, ideologia, eta abarrez baldintzatu gabe emaitza automatikoak ematen dituelako. Modu honetan, informazioa era erraz batean bilduta eta emaitzak era objektiboan jasota, lan astuna murriztu egiten da ikerlanaren atal garrantzitsu batean erabat kokatzeko, hau da, ipuinetan erabilitako hizkuntza emaitzen interpretazioan aritzeko.

Hizkuntza da jendartean pertsonak komunikatzeko erabiltzen duten sistema. Hau idatzizkoa edo ahozkoa izan daiteke eta ezaugarri desberdinak izan ditzake, hizkuntza hori erabiltzen duen komunitatearen arabera. Esate baterako, hizkuntzek zama sexista desberdinak edukitzea. Emakunderen (1988) arabera, hizkuntzak eta errealitateak elkarri eragiten diotenez, eta, era berean, hizkuntza errealitatearen isla denez, hizkuntza modu sexistan¹⁶ eta androzentrikoan¹⁷ erabiltzen dugu, kultura sexista eta androzentrikoan bizi garelako. Emakundek (1988: 8-12) sexismoak eta androzentrismoak eragindako akats batzuk honako hauek direla adierazten du:

- a) Emakumeak era batera edo bestera ezkutetzea edo desagertaritzea.
- b) Gizonezkoak ekintzaren ardatz eta erreferentzia gunetzat hartzea, eta emakumezkoak menpeko edo agindupekotzat.
- c) Nolako sexua halako tratamendua. Emakumeak adingabeen modura tratatzea.
- d) Ezaugarri ezberdinak aipatzea gizon (adimenezkoak) eta emakumeen (estetikazkoak) deskribapenetan.
- e) Emakumea aipatzea deskalifikatzeko. Aipu iraingarriak emakumezkoen edota berauei aitortzen zaizkien balio, portaera eta jarreraren aurka.

Hizkuntzen sexu-zama kuantifikatzeko kontuan hartzen diren faktoreak dira genero gramatikalaren eta sexuen arteko erlazioa (*alkatesa/alkatea*), maskulinoaren erabilpena genero komunaren balioez (*gizona abere hutsa da, gizakia edota pertsona zentzuarekin esaten bada*), aditzaren eta izenordeen sexualitatea (*hikaren bigarren*

¹⁶ Sexismoa pertsonak sexuaren arabera gutxiesten duen jarrera diskriminatzailea da. Hizkuntza sexistak hizkuntzaren erabilera sexistari egiten dio erreferentzia.

¹⁷ Androzentrismoa munduaren azterketa gizonezkoen ikuspuntuan zentratzea, emakumeen presentzia eta ekarpenak desagerraraziz.

pertsona singularrean) eta erro maskulintik hitz komunak (*jendartea adierazteko gizartea hitza erabiltzea, gizona hitzetik eratorria dena*) (Alvarez-Uria, 2004).

Euskarak izen sintagmetan genero gramatikalik ez duen arren, hizkuntzako % 5eko zama sexista dauka, hau da, legegizon hitza hiztegian aurki daiteke, baina lege-andrea ez. Modu honetan, euskarak % 5eko lexiko sexista dauka beti ez dituelako guraso edo neba-arreba bezalako egiturak emakumez eta gizonaz aritzeko. Hala ere, ezin daiteke esan euskara hizkuntza sexista denik, baizik eta hizkuntzaren erabilera sexista egiten dela (Alvarez-Uria, 2004). Izan ere, hizkuntzak aukera anitz ematen dizkigu errealitatea adierazteko eta errealitatea adieraztea gure esku dago. Beraz, nolako munduaren ikuskera, halako hizkuntzaren erabilera.

Marko metodologikoa

Lan honen helburua da ipuin tradizioaletan eta modernoetan erabiltzen den hizkuntza aztertzea eta alderaketak egitea, ipuinetan gertatu den aldaketa hizkuntzan ere gertatu den aztertzeko eta halakorik gertatu bada, zeintzuk diren ezaugarriak zehazteko.

Horretarako, lehenik eta behin, (i) ipuin tradizionalak eta liburutegi edota elkarte desberdinek ipuin hezkidetzaille edo ez-sexistatzat proposatzen dituztenen artean ipuin modernoak aukeratuko dira. Ondoren, (ii) ipuin horiek TXT (UTF8) formatura pasatuko dira ANALHITZA¹⁸ programarekin ipuinen hizkuntza azterketa egiteko. Gero, (iii) aurrerago analisi fasean hizkuntzaren erabilera sexista identifikatzeko erabiliko den aditz eta adjektiboen erabilera sexista erakusten duen zerrenda bat eratuko da. Horren ostean, (iv) ANALHITZA programatik eratutako kalkulu orriak jasoko dira eta (v) kalkulu orriaren filtroekin aztertuko dira. Geroago, (vi) ipuin tradizional eta modernoengandik jasotako emaitza adierazgarriekin emakumezko eta gizonezkoen datuen arteko konparazioa egingo da, ipuinen azterketa eta alderaketaren ondorioak ateratzeko.

Hurrengo irudian (ikus: 1. Taula), lanean jarraitutako urratsen laburpena ikus daiteke.

- | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| (i) Corpusaren hautaketa
(ii) Transkribapenak TXT (UTF8) formatuan
(iii) Zerrenda sexistaren eraketa
(iv) ANALHITZA programan datuak sartu eta emaitzen jasotzea.
(v) Datuak aztertzea, kalkulu orrien filtroekin.
(vi) Emaitzen analisisa eta ondorioak |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

1. taula: Marko teorikoan jarraituko diren urratsak.

¹⁸ Otegi, A. Imaz, O. Díaz de Ilarraza, A. Iruskieta, M. Uria, L. 2017 ANALHITZA: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research. *Procesamiento del Lenguaje Natural* 58: 77-84. ANALITZA programaren informazio sakonerako kontsultatu hurrengo webgune honetara: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/analhitza.php?lang=eu>

1. Corpora

Haur ipuinetan agertzen diren irudiek ere garrantzia adierazgarria duten arren, lan hau ipuinen hizkuntzaren azterketara mugatuko da. Horretarako, hizkuntzaren prozesamenduko ANALHITZA tresna erabiliz ipuin sexisten eta ipuin hezkidetzailleetan¹⁹ erabiltzen den hizkuntza aztertzeko corpusaren sailkapen hau osatu da²⁰:

- i. Ipuin tradizionalak emakume protagonistekin.
- ii. Ipuin tradizionalak gizon protagonistekin.
- iii. Ipuin hezkidetzailleak emakume protagonistekin.
- iv. Ipuin hezkidetzailleak gizon protagonistekin.

Aztertuko diren ipuinak Haur zein Lehen Hezkuntzako umeentzat dira, eta ipuinen protagonistak pertsonak izango dira, hau da, ez dira ez animaliak ezta objektu animatuak dituzten protagonistak dituzten ipuinik hautatuko.

Ipuinen hautaketan, ipuin tradizionalak ipuin klasikotzat sailkatzen diren ipuinak hartuko dira. Ipuin hezkidetzailen kasuan, berriz, hainbat elkartek, udalek eta liburutegik²¹ hezkidetzaille moduan sailkatzen dituzten ipuinen artean hautaketa egingo da. Hona hemen aztertuko diren ipuinak²² eta haien ezaugarriak:

- i. Ipuin tradizionalak emakume protagonistekin
 - Loti Ederra
 - Txanogorritxo
 - Mari Errauskin
 - Edurnezuri
 - Sirenatxoa

Ikus 2. *taulan* azpicorpus honen ezaugarriak.

Hitzak	Esaldiak	Izena	Adjektiboak	Aditzak	Pertsonaiak	
					Em.	Giz.
1506	130	511	116	557	14	17

2. taula: Emakumezko protagonistak dituzten ipuin tradizionalen ezaugarriak.

¹⁹ Hezkidetzeta genero estereotipoak gainditzen dituen hezkuntza da, hau da, pertsonen abilezia, trebetasun eta gaitasun desberdinetan pertsona guztiek eskubide berdinak dituztela defendatzen duen heziketa metodoa.

²⁰ Beste kategoria bat sar zitekeen badaudelako testuak non ere transexualitatea lantzen diren, esate baterako arestian aipatutako *Zakila duten neskak* ipuina hurrengo helbidean eskuragarri dagoena: http://chrysaliseh.eus/Material/ikasmateriala_eus.pdf

²¹ Zarauzko Udala, Lekeitioko Udala, Granadako Diputazioa, Abanto-Zierbana Udala eta Gazteizko Udal Liburutegien Sarea.

²² Corpora osatzen duten ipuinen informazio gehiagorako jo eranskinetara (Ikus: 2. Eranskina: Aditz eta adjektiboen zerrenda sexista).

- ii. Ipuin tradizionalak gizon protagonistekin
- Erpurutxo
 - Peter Pan
 - Hamelingo txirularia
 - Jostungo ausarta
 - Berunezko soldadutxoa

Ikus 3. *taula2. taulan* azpicorpus honen ezaugarriak.

Hitzak	Esaldiak	Izena	Adjektiboak	Aditzak	Pertsonaiak	
					Em.	Giz.
1943	144	696	121	707	10	18

3. taula: Gizonezko protagonistak dituzten ipuin tradizionalen ezaugarriak.

- iii. Ipuin hezkidetzailleak emakume protagonistekin.
- Zer izango naiz handitan?
 - Nire aita etxekoandrea da, eta zer?
 - Aita despistatu bat
 - Mari Joseri zergatik deitzen diote Joxe Mari?
 - Hamaika andere ausart

Ikus 4. *taulan* azpicorpus honen ezaugarriak.

Hitzak	Esaldiak	Izena	Adjektiboak	Aditzak	Pertsonaiak	
					Em.	Giz.
2785	291	925	153	946	24	6

4. taula: Emakumezko protagonistak dituzten ipuin hezkidetzailleen ezaugarriak.

- iv. Ipuin hezkidetzailleak gizon protagonistekin
- Hau al da benetako giza bidea?
 - Puff!! Hau nazka!
 - Jonas eta hozkailu beldurtia
 - Nork laguntzen du etxean?
 - Aitona maitea

Ikus 5. *taulan* azpicorpus honen ezaugarriak.

Hitzak	Esaldiak	Izena	Adjektiboak	Aditzak	Pertsonaiak	
					Em.	Giz.
2850	430	928	150	1116	6	8

5. taula: Gizonezko protagonistak dituzten ipuin hezkidetzailleen ezaugarriak.

Ikus **6. Taula: Azpicorpus osoaren ezaugarriak.n** azpicorpus osoaren ezaugarriak.

	Hitzak	Esaldiak	Izena	Adjektiboak	Aditzak	Pertsonaiak	
						Em.	Giz.
Ipuin tradizionalak emakume protagonistak	1506	130	511	116	557	14	17
Ipuin tradizionalak gizon protagonistak	1943	144	696	121	707	10	18
Ipuin hezkidetzailleak emakume protagonistak	2785	291	925	153	946	24	6
Ipuin hezkidetzailleak gizon protagonistak	2850	430	928	150	1116	6	8

6. Taula: Azpicorpus osoaren ezaugarriak.

2. Transkripzioak

Hautatutako ipuinen transkripzioak TXT (UTF8) formatuan egingo dira ANALHITZA programak onartzen duen formatua delako. Ipuin guztiak hitzez hitz eskuz transkribatuko dira inolako aldaketarik egin gabe.

3. Azterketarako tresnen eraketa

Fase honetan, datuen analisi fasean erabiliko den *aditz eta adjektibo sexisten zerrenda* sortuko da. Horretarako, *La nueva imagen de la mujer* (Orquín, 1989) eta *Sexismo en la literatura infantil* (Vintró, 2008) testuak oinarritzat hartuko dira aditz eta adjektiboen zerrenda eratzeko. Aditz eta adjektiboen zerrenda honetan, hizkuntzaren erabilera sexistatzat hartzen diren hitzak zerrendatuko dira emakume eta gizonetan bereizirik (Ikus: 2. Eranskina: *Aditz eta adjektiboen zerrenda sexista*), datuen analisisa fasean aditz eta adjektibo sexisten identifikaziorako.

4. Datuen hautaketa eta analisisa

ANALHITZA programak sartutako datuen kalkulu-orrietan ipuinen ezaugarri orokorrak, pertsonaia desberdinek burutzen dituzten ekintzen eta pertsonaiak deskribatzeko erabiltzen diren adjektiboak aztertuko dira.

Aztergaiak

ANALHITZAren kalkulu-orrietan jasoko den laugramak²³ estekaz baliatuz emakumezko zein gizonzkoek ipuin sailkapen desberdinetan burutzen dituzten ekintza eta

²³ Izen (N eta R), aditz (V) eta adjektiboen (G) artean dauden erlazioak analizatzeko ANALITZA programak eratzen dituen gramak dira, hau da, hitz kopuru desberdinetako erlazioen sareak. Lan honetan,

pertsonaia desberdinak kalifikatzeko erabiltzen diren adjektibo desberdinak aztertuko dira. Horretarako, kalkulu-orrien filtroak hurrengo egiturarekin erabiliko dira:

1) Ekintzen azterketa

Pertsonaiek egiten dituzten ekintzen analisirako hurrengo formula filtroa erabiliko da:

- Pertsonaien izenak + Aditza

Formula honen bidez ANALHITZA programak analizatutako ipuinetan erlazionatuta agertzen diren izen (N eta R) eta aditz (V) guztiak filtratu egingo dira. Modu honetan, erlazio zuzena dituzten izen eta aditz guztien artean izen propio edo emakume eta gizonei dagozkien izen orokorrak hautatuko dira, horiek aztertzeko asmoz.

Ikus, esate baterako, 1. adibidea. **ANALHITZA programak ematen dituen kalkulu-orrien adibidea.**, zeinetan lehenengo zutabeak maiztasun kopurua ematen digun, hau da, *aita despistatu* birritan agertzen dela eta *aita nekatu* behin bakarrik. Hirugarren eta bosgarren zutabeek, aldiz, ezkerreko zutabeen duten hitzen deskribapena ematen digute, hau da, izena (N), adjektiboa (G) edo aditzak (V) diren. Kasu honetan, bi adibideek izena (N) + aditza (V) patroia jarraitzen dute analisirako erabilitako formula hori izan delako.

Errepikapen kopurua		Ezkerreko hitzaren deskribatzailea		Ezkerreko hitzaren deskribatzailea
2	aita	N	despistatu	V
1	aita	N	nekatu	V

1. adibidea. ANALHITZA programak ematen dituen kalkulu-orrien adibidea.

Pertsonaiak deskribatzeko erabiltzen diren adjektiboen azterketa

Pertsonaien deskribapenen analisia egiteko hurrengo hiru formula/filtro erabiliko dira izen (N eta R) eta adjektibo (G) guztiak identifikatzeko:

- Pertsonaien izenak + Adjektiboa
- Pertsonaien izenak + edozer + Adjektiboa
- Pertsonaien izenak + edozer + edozer + Adjektiboa

bigramak, (bi hitzen sareak), trigramak (hiru hitzen sareak) eta laugramak (lau hitzen sareak) erabiliko dira.

Euskararen egitura sintaxiko malgua dela eta, hitz-segida ateratzeko, aurreko hiru formulak erabiliko dira. Izan ere, *izena + adjektibo* kasuetan (adibidez, *emakume azkarra*) ANALHITZAK ematen dituen 2-gramen bidezko azterketan egin daiteke, baina, ez, ordea, *emakume hori azkarra*, horretarako, 3-grametako azterketa behar da, hain zuen ere, *izena + edozer + adjektiboaren* erlazioa analizatzeko.

Gauza bera gertatzen da *emakume hori oso azkarra* edo *emakume hori azkarra da* kasuetan zeinetan, hurrenez hurren, *izena + edozer + edozer + adjektiboa* eta *izena + edozer + edozer + aditzaren* arteko erlazio egoeretan 4-grametan oinarrituriko azterketa egin behar den. Izan ere, azkenengo bi formulak erabiliko ez balira, 3- eta 4- grametako lotura guztiak galduko lirateke.

Behin emaitza guztiak filtratuta hirugarren fasean, azterketarako tresnen eraketa fasean, sortutako zerrenda aztertuko da. Zerrenda horretan, *tradizio sexistan* emakumeei egotzen zaizkien aditz eta adjektiboak arrosa kolorez markatuko dira, eta urdinez gizonei egotzitakoak. Ondoren, aditz eta adjektiboak arrosaz eta urdinez markatuko dira (pertsonaien arteko inolako bereizketarik egin gabe) ahalik eta objektibotasun handienez, pertsonaia bakoitzari egotzen zaion adjektibo eta aditzen erabilera aztertuko.

Ikus, esate baterako, 2. adibidea. **Aditz eta adjektibo sexisten identifikaziorako zerrendaren erabilera.**, zeinetan emakumezko eta gizonezko pertsonaiekin erabilitako aditzak (V) biltzen diren. Aditz hauek urdinez edo arrosaz markatuta daude *aditz eta adjektibo sexisten zerrenda* jarraituz, hau da, *tradizio sexistan* emakumezkoei zein gizonezkoei egotzitako aditzen arabera. Kasu honetan, emakumezko pertsonaien kasuan arrosaz markatutako eta emakumezkoei egotzitako aditza (*errukitu*), urdinez markatutako eta gizonezkoei egotzitako aditza (*harrapatu*), eta kolorerik gabeko aditza eta sexistatzat sailkatuta ez dagoen aditza (*jantzi*) dago. Gizonezko pertsonaien kasuan, berriz, bi kolorez markaturiko aditzak aurkitzen dira: gizonezkoei egotzitako aditza (*ohartu*), eta kolorerik gabeko eta sexistatzat sailkatuta ez dauden aditzak (*eraman* eta *begiratu*).

EMAKUMEZKOAK					GIZONEZKOAK				
1	Edurnezuri	R	errukitu	V	1	aita	N	ohartu	V
1	ama	N	harrapatu	V	1	ehiztari	N	eraman	V
1	neskato	N	jantzi	V	1	printze	N	begiratu	V

2. adibidea. Aditz eta adjektibo sexisten identifikaziorako zerrendaren erabilera.

5.KAPITULUA

Emaitzak

Lan honetan ipuin tradizionalak eta modernoekin osatutako corpusa egin ondoren eta protagonisten sexuak hizkuntzaren erabilera baldintzatzen duen analizatzeko aurreko atalean proposaturiko metodoan corpusa emakumezko eta gizonezko protagonistak biltzen dituen azpicorpusetan banatzea erabaki dugu, honela:

- i. Ipuin tradizionalak emakume protagonistekin
- ii. Ipuin tradizionalak gizon protagonistekin
- iii. Ipuin hezkidetzailleak emakume protagonistekin
- iv. Ipuin hezkidetzailleak gizon protagonistekin

Eta emaitzak ere lau azpitalde horien arabera interpretatuko ditugu.

Ipuin tradizionalak emakume protagonistekin

Emakumeak protagonistak diren ipuin tradizional hauek²⁴ 1971. urteko Princetown Unibertsitateak ateratako emaitzekin bat datoz; izan ere, gizonezko pertsonaiak emakumezkoak baino gehiago dira: emakumezkoak 14 eta gizonezkoak 17. Gehien errepikatzen den izena *printze* (23 aldiz) lema da eta horren ostean, *ama* (12), *Eduenezuri* (11) eta *errege* (10) lemak.

Pertsonaien deskribapenari dagokionez, adjektiboak erreparatuz, gehien errepikatzen diren adjektiboak *eder* (16), *maitagarri* (8) eta *handi* (7) dira. Maiztasun handiena duen *eder* adjektiboa emakume (4) zein gizonekin (1) erabiltzen den arren, emakumeak definitzeko gehiago erabiltzen da. Hona hemen lortutako emaitzak 7. Taulan:

Emakumezkoak						Gizonezkoak				
1	Loti	R	eder	G		1	printze	N	eder	G
1	neska	N	gazte	N	eder	G				
1	neskatxo	N	eder	G						
1	neskatila	N	eder	G						

7. Taula: Eder adjektiboaren maiztasuna eta erlazioa.

²⁴ Loti Ederra, Txanogorritxo, Mari Errauskin, Eduenezuri eta Sirenatxoa ipuinak.

Bestalde, pertsonaiei dagokionez, emakumeak definitzeko ere *maitagarri* (1), *alai* (1), *gaizto* (1), *maltzur* (1) eta *jeloskor* (1) adjektiboak erabiltzen dira. Gizonezkoen, kasuan, berriz, *maitea* (1), *ausarta* (1) eta *adoretsu* (1) adjektiboak. Honek erakusten du (corpusa txikia izan arren) ipuin tradizionaletan emakume protagonistekin estereotipo femeninoak iraunarazten dituztela. Gizonak deskribatzeko, ordea, zailtasunarekin lotutako adjektiboak erabili dira: *ausartak* eta *adoretsuak*, Gabiriak (2009) egindako haur liburuetako 300 pertsonaien azterketan lortutako emaitzekin bat datorrena. Emakumeak ipuinetan, berriz, maitasuna, ezkontza eta haurrak zaintzeaz arduratzen direnez (Gabiria, 2009), *maitagarriak*, *alaiak* eta *ahots gozodunezkoak* dira, betiere *gaizto*, *jeloskor* eta *maltzurak* ez badira. Hona hemen lortutako emaitzak 8.

Taulan:

Emakumezkoak						Gizonezkoak					
1	neskatxa	N	maitagarri	G		1	printze	N	maitea	G	
1	ahizpaorde	N	gaizto	G		1	printze	N	ausart	G	
1	amaorde	N	jeloskor	G		1	printze	N	adoretsu	G	
1	Sirenatxo	N	alai	G							
1	sorgin	N	maltzur	G							
1	Coral	N	ahots	N	gozo	G					

8. Taula: Emakumezkoak eta gizonezkoak deskribatzeko izen eta adjektiboak.

Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, emakumeak definitzeko adjektiboaren artean *positiboak* (maitagarria eta alai) eta *negatiboak* (gaizto, jeloskor eta maltzur) aurki daitezke, gizonezkoen kasuan, *positiboak* (maitea, ausarta eta adoretua) bakarrik dauden bitartean.

Gizonezko pertsonaien kasuan ere bestelako kalifikazioa erabili dela antzeman da eginkizun bat kalifikatzeko orduan (ikus: 9. Taula).

Gizonezkoak								
1	bihotz	N	handi	G	izan	V	ehiztari	G

9. Taula: Gizonen jarrera balioesteko beste deskribapen lemak

Aitzitik, emakumeen kasuan arestian aipatutako kalifikazio *negatibo*en deskribapenetan gehiago sakontzen da. Hona hemen jasotako emaitzak 10. Taulan:

Emakumezkoak								
1	atso	N	sorgin	N	maltzur	G		
1	ahizpaorde	N	gaizto	G	eta	C	jeloskor	G

10. Taula: Emakumeen izaera galarazteko adjektiboaren lemak.

Emakumeen ezaugarri fisikoen erreferentziak ere aurkitu dira eta baita gizonezkoen kasuan ere, azken horiek maiztasun txikiagoa duten arren. Horien adibideak 11. *Taulan* eta 12. *Taulan* daude:

Emakumezkoak							
1	neska	N	gazte	G	eder	G	
1	alaba	N	gazte	N	azal	N	zuri G
1	neskato	N	jantzi	V	zahar	G	

11. Taula: Emakumezko pertsonaien ezaugarri fisikoen lemak.

Gizonezkoak							
1	Neptuno	R	errege	N	ermitau	N	txiki G

12. Taula: Gizonezko pertsonaien ezaugarri fisikoen lemak.

Pertsonaien ekintzei dagokienez, Vintrók (2008) adierazten duena betetzen da, hau da, ipuinek emakumezko eta gizonezko pertsonaien irudi desorekatua transmititzen dituzte, emakumeei ekintza zehatz batzuk egotziz eta gizonezkoek beste batzuk. Corpus honetan aurkitutako adibide adierazgarrienak 13. *Taulako* hauek lirateke:

Emakumezkoak					Gizonezkoak				
1	Edurnezuri	R	errukitu	V	1	aita	N	ohartu	V
1	ama	N	eraman	V	1	ehiztari	N	eraman	V
1	neska	N	lagundu	V	1	errege	N	onartu	V
1	ama	N	harrapatu	V					
1	Coral	R	lagundu	V					
1	neskato	N	jantzi	V					
1	Edurnezuri	R	hil	V					

13. Taula: Emakumezko eta gizonezko pertsonaien eta aditzen erlazioak.

Pertsonaia femeninoek *errukitu sentitu* eta *ekintzetan lagundu* egiten duten bitartean, gizonezkoek *gauzez ohartu* egiten dira (jakinduria adierazten duen ekintza). Hala ere, neutrotzat sailka daitekeen *eraman* aditzaren mezu transmisio aldaerak aurkitzen dira emakumezkoek edo gizonezkoek dagokienean (esate baterako, ehiztaria Edurnezuri basora eramaten duenean). Emakumezkoek ere eraman aditza badute, baina Sirenatxoaren ipuinean ez ezik (printzea itsasontziaren urperaketan salbatzen duenean eta jauregira eramaten duenean), beste kasu guztietan eraman aditza garrantzia gutxiagokoa da edota etxeko kontuekin lotuta daude (Txanogorritxok amamari jakiak eramaten dizkionean edo jantziak eramateari erreferentzia egiten denean). Ekintza gogorra eta gordina adierazten duen hil aditza Edurnezurirekin batera agertzen den arren, ekintza hori bihotza handia duen gizonezko ehiztari bati dagokio (aurrerago Edurnezuriri bere zigorra bakartuko diona).

Ipuin tradizionalak gizon protagonistekin

Gizonezkoak protagonistak diren ipuin tradizional hauetan²⁵ gizonzkoen pertsonaia (18) kopuru handiagoa da, ia emakumezkoena (10) bikoiztuz. Gizonezko emakumezko baino pertsonaia gehiago egoteak *jostuntxo* (17), *soldadutxo* (15), *erraldoi* (14) eta *jostun* (14) izenak gehien errepikatzen diren izenen arrazoa izan daiteke. Gauzak horrela, izenen zerrendan emakumezko bati egiten zaion lehenengo erreferentzia 36. postuan dago eta lau errepikapen dituen *emazte* hitza da. Datu honek Emakunde erakundeak (1988) adierazi zuen sexismoaren eta androzentrismoaren ondorioetako bat baieztatzen du, hots, emakumeak era batera edo bestera ezkutatzea edo desagertzea.

Pertsonaiak kalifikatzerako orduan ere, desberdintasunak daude emakume eta gizonen artean. *Lily txiki*, *panpina gaizto* eta *txintxirrin maitagarri* diren bitartean, *jostuntxo*, *buruzagia* eta *gudaria ausartak* dira. *Jostuntxo trebetzat* eta *txikitzat* ere definitzen da, baina ez da ahaztu behar horrek kontakizunean *jostuntxo txikia* izatea pertsonaiaren ezaugarria ere badela (ikus: 14. Taula).

Emakumezkoak					Gizonezkoak				
1	Lily	R	txiki	G	4	jostun	N	txiki	G
1	panpina	N	gaizto	G	2	buruzagi	N	nagusi	G
1	Txintxirrin	N	maitagarri	G	1	jostuntxo	N	ausart	G
					1	gudari	N	ausart	G
					1	jostun	N	trebe	G
					1	gizon	N	txiki	G

14. Taula: Emakumeak eta gizonak deskribatzeko adjektiboen lemak.

Emakumeek *esan*, *jan* eta *agurtu* egiten dute, gizonzkoek gizonzkoek ekoitzen zaizkien ekintzak *harrapatu*, *aurkitu*, *hil* eta emakumezkoek *egotzitako* ekintzak ere aurrera eramaten dituzte: *jarraitu*²⁶, *lagundu*, *onartu* eta *esnatu* (ikus: 15. Taula).

Emakumezkoak					Gizonezkoak				
1	emazte	N	esan	V	3	txirulari	N	jarraitu	V
1	emazte	N	jan	V	1	Mike	R	harrapatu	V
1	neba-arrebak	N	agur_esan	V	1	ehiztari	N	lagundu	V
					1	anaia	N	aurkitu	V
					1	neba-arrebak	N	agur_esan	V
					1	Jostuntxo	N	esnatu	V
					1	Jostuntxo	N	hil	V
					1	Jostuntxo	N	onartu	V
					1	erraldoi	N	saiatu	V
					1	ogro	N	esnatu	V

15. Taula: Emakumezko eta gizonzko ekintzen lemak.

²⁵ Erpurutxo, Peter Pan, Hamelingo txirularia, Jostungo ausarta eta Berunezko soldadutxo ipuinak.

²⁶ Corpus honetan *jarraitu* aditza berezia da, ez delako pertsonaia maskulino batek aurrera eramandako ekintza, baizik eta bere ekintza batek izandako ondorio. Kasu honetan, Hamelingo txirulariak txirula jotzean izandako emaitzaz, hau da, arratoi guztiek bera jarraitzea.

15. *Taulan* ikus daitekeenez, emakumeen zein gizonezkoen pertsonaiei egozten zaizkien ekintzak emakumezko protagonistak diren ipuin tradizionalen eta Gabiriaren (2008) ikerketen patrioiak jarraitzen dituzte, hau da, emakumeek jarrera pasiboagoa dute, gizonezkoek ekintza nagusien protagonismoa hartzen duten bitartean.

Ipuin hezkidetzailleak emakume protagonistekin

Emakumeak protagonistak diren ipuin moderno hauetan²⁷ emakumezko baino gizonezko pertsonaia kopuru askoz handiagoa dago, emakumezkoak 24 eta gizonezkoak 6 izanik.

Hala ere, adierazgarria da ipuin hauetan emakumezkoa ipuinen protagonista izanda, gehien errepikatzen den izena *aita* izatea, 53 errepikapenekin. Horren ostean, gehien errepikatzen direnak *Maritxu* (30), *andere*²⁸ (17) eta *ama* (17) izenak dira.

Adjektiboen erabilerari dagokienez, *ausart* (10), *polit* (7), *on* (4), *handi* (4), *zoragarri* (3), *eder* (3) eta *txar* (3) dira gehien errepikatzen direnak. Hala ere, hainbat ikerketek (Orquín, 1989; Vintro, 2008; Gabiria, 2009) adierazi moduan emakumezkoak deskribatzeko *ohiko* adjektibo asko erabiltzen jarraitzen da, besteak beste: *polit*, *on* eta *eder*.

Emakumeak ezaugarriak adierazteko *ausart* hitza da gehien erabiltzen dena. Ikus hurrengo adibideak 16. *Taulan*:

Emakumezkoak				
7	andere	N	ausart	G
1	printzesa	N	ausart	G

16. Taula: Ausart adjektiboaren maiztasuna eta erlazioak.

Ipuin tradizionaletan emakumeak deskribatzeko erabiltzen diren adjektiboekin alderatuz, emakumezko protagonistak dituzten ipuin hezkidetzailleetan *positiboagoa* den *ausart* adjektiboa dago, eta beraz, emakumeak deskribatzeko ez da emakumeei "tradizioz" egotzitako adjektiboetara jotzen (adibidez, *maitagarri*, *jeloskor* eta *maltzur*). Aitzitik, aipatu beharra dago *ausart* adjektiboaren maiztasuna Hamaika Andere Ausart liburuan egiten den *andere-ausart* konbinazioa dela jatorria, hizkuntza jolas edo baliabide moduan.

²⁷ Zer izango naiz handitan?, Nire aita etxeakoandrea da, eta zer?, Aita despistatu bat, Mari Joseri zergatik deitzen diote Joxe Mari? eta Hamaika andere ausart ipuinak.

²⁸ Andere hitza *Hamaika Andere Ausart* ipuinean behin eta berriz erabiltzen den hitza andere-ausart hitzen konbinazioarekin hizkuntzan jolas edo baliabide modura.

Hala ere, *gajo*, *isil*, *on*, *maitagarri* eta *txiki* adjektiboak ere erabiltzen dira pertsonaia femeninoak definitzeko 17. Taulako adibideetan ikus daitekeenez:

Emakumezkoak						
1	Mari	R	Jose	R	<i>isil</i>	G
1	emakume	N	esker	N	<i>on</i>	G
1	gaztelu	N	printzesa	N	<i>maitagarri</i>	G
1	Maritxu	R	oraindik	A	<i>txiki</i>	G
1	emakume	N	<i>gajo</i>	G		

17. Taula: Emakumeak deskribatzeko adjektiboen lemak.

Gizonezkoen kasuan, adjektiboen erabilpen zabalagoa ematen da, hau da, ez da antzematen ipuin tradizioaletan antzematen diren balore patriarkalak eta adjektiboen bereizketa emakumeak edo gizonezkoak deskribatzerakoan. Izan ere, ipuin tradizioaletan *ausart*, *adoretsu* eta *trebe* aurkitzen diren bitartean, emakumeak protagonistak diren ipuin hezkidetzailleetan *eder*, *zahar*, *despistatu*, *serio* eta *marisukalde*²⁹ adjektiboak erabiltzen dira (ikus: 18. Taula).

Gizonezkoak					
1	printze	N	eder		G
1	gizon	N	<i>zahar</i>		G
1	aita	N	despistatu		G
1	aita	N	serio		G
1	aita	N	marisukalde		G

18. Taula: Gizonezkoak deskribatzeko adjektiboen lemak.

Pertsonaiek burutzen dituzten ekintzei dagokienez, emakumeen ekintzak definitzeko *ausartu* (1), *jakin* (1) eta *pentsatu* (1) aditzak erabiltzen dira eta ipuin klasikoan erreferentzi sexistak ere agertzen diren arren. Esate baterako:

"Maritxuk gogoko du gauetan ohe gainean etzanda ipuinak irakurtzea; batik bat, printzesak musu emanda printze ederra bihurtu zen igelarena."

Maritxuk irakurtzea gogoko duen ipuina Grimm anaien kontakizun bati egiten dio erreferentzia eta hainbat bertsio dauden arren, funtsean printzesa bere printzea aurkitu nahian igelak besarkatzeko prest dago. Kontakizun honetan emakumeak egiten duen ekintza gizon batentzat gustagarri izatea erabat sexista da, ez duelako gizona bilatzen atxilotzeko agindua duelako, baizik eta berarekin ezkondu eta zoriontsu izateko. Ipuin honetan ere sexistatzat sailkatu daitezkeen nahia aipatzen da:

"Maritxuk printzesa izan nahi du."

²⁹ Mespretxuzko edo gutxiespenerako erabil daitekeen Marisukalde hitza aitaren perfil berria definitzeko erabiltzen da, hau da, aita ere sukaldatu egiten duela adierazteko.

Egun printzesa klasikoak dira ezagunenak eta erabilienak, printzesen bertsio modernoak argitaratzeko saiakuntzak egin diren arren (batzuetan hain modernoak ere ez direnak). Beraz, *Zer izango naiz handitan?* ipuinean bere protagonistak, *Maritxuk*, hainbat lanbide handitan burutzeko kontuan dituen arren, printzesa izatea aukeratu izanak eredu sexista errepikatzen du, printzesaren lanbideaz ez delako ezer ezagutzen eta emakumeari eredu sexistak ematen dizkion ezaugarriak baizik. Beharbada, aukera askatasuna izateko printzesa mekanikariak edota printzesa zaldunak arketipoak apur ditzake.

Gizonezkoekin lotzen diren aditzak daude azpicorpus honetan, esaterako, *despistatu*, *nekatu*, *asmatu* eta *lagundu* (azken hau da emakumezko protagonistak dituzten ipuin tradizioaletan emakumeei askotan egotzen zaien aditza). Hauen adibideak 19. Taulan daude:

Gizonezkoak				
2	aita	N	despistatu	V
1	aita	N	nekatu	V
1	aita	N	asmatu	V
1	aita	N	lagundu	V

19. Taula: Gizonezko pertsonaien eta aditzen bigramak.

Ipuin hezkidetzailleak gizon protagonistekin

Gizonezkoak protagonistak diren ipuin moderno hauetan³⁰ gizonezko (8) eta emakumezko (6) pertsonaien kopurua antzekoa da. Baina, gizonezkoak protagonistak diren ipuin modernoetan ezin da ondorio sendorik adierazi erabilitako izen eta adjektiboen kasuan. Egia da, pertsonaiak definitzeko adjektibo batzuk aurreko azpicorpusetakoak erabiltzen direla, esate baterako, *emakume gajo* (1).

Pertsonaia maskulinoei dagokienez, honelakoak erauzi ditugu 20. Taulan:

Gizonezkoak								
1	Aita	N	seme	N	lasai	G		
1	Josanen	R	bihotz	N	oso	A	beldurti	G
1	Kaxintok	R	nahiko	A	kezkatu	G		

20. Taula: Gizonezko pertsonaien eta aditzen trigramak.

Gizonezkoak definitzeko "*tradizioz*" emakumeei egotzitako adjektibo batzuk erabiltzen dira, baina emakumeen kasuan, *azkar* eta *gogor* adjektiboak erabiltzen diren arren,

³⁰ Hau al da benetako giza bidea?, Puff!! Hau nazka!, Jonas eta hozkailu beldurtia, Nork laguntzen du etxean? eta Aitona maitea ipuinak

oraindik ere emakumeen zenbait ekintzetan sexistak diren jarrerak daude, adibidez, *ama ekarri coca-cola* (1). Hauetan, amaren (edo emakumearen) perfil zerbitzaria edo laguntzailea erakusten da. Hala ere, badaude rol berriak (arketipo berriak) definitzen direnak ere emakumea *Rosa azkar* (1), *Rosa gogor* (1) bezala definitzen dituztenak, alegia.

6.KAPITULUA

Ondorioak

Ipuinen azterketa egin eta gero orokorrean gizonezkoen pertsonaia kopuru handiagoa dagoela ikusi da, ipuin hezkidetzailleetan izan ezik. Hala ere, datu adierazgarria izan da aurkitzea emakumeak protagonistak diren ipuinetan (bai ipuin tradizionaletan bai hezkidetzailleetan) gehien errepikatzen diren hitzak gizonezko pertsonaia batenak izatea. Izan ere, emakumeak protagonistak diren ipuin tradizionalen multzoan gehien erabiltzen den izena *printze* hitza da. Gauza bera gertatu da emakume protagonistak diren ipuin hezkidetzailleen multzoan, zeinetan nahiz eta emakumeen pertsonaia kopurua gizonezkoena baino lau aldiz handiagoa izan, gehien errepikatzen den izena *aita* hitza da. Mota honetako ondorio horiek Hizkuntzaren Prozesamenduarekin ateratzea erraza eta arina da, baina azterketa hori eskuz eginda, lan neketsua eta astunegia izango litzateke.

Ipuin tradizionaletan gizonezkoak deskribatzerakoan adjektibo *positiboak* (esate baterako, *maitea*, *ausarta*, *adoretsua*, *trebea*) erabiltzen dira. Emakumeen kasuan, aditz eta adjektiboen zerrenda sexistan emakumearen zutabeko adjektiboetara mugatzen da gehienbat, hau da, *alaia*, *gozoa*, *ederra* eta *maitagarria* bezalako adjektiboak erabiltzeaz gain, *adjektibo negatiboak* ere erabiltzen dira, besteak beste: *maltzurra*, *gaiztoa*, *jeloskorra*. Ipuin tradizionaletan pertsonaien izaerari erreferentzia egiten dioten adjektiboez gain, emakumezkoen itxura fisikoaren inguruan zenbait aipamen egiten dira, batez ere, jantzi, gaztetasun eta edertasunari lotuak. Aitzitik, ez da horrelakorik gertatzen gizonezko pertsonaien kasuan.

Ipuin hezkidetzailleetan, emakumeak protagonistak diren ipuin multzoan, badaude emakumearen zutabean aditz eta adjektiboen zerrendan sexistatzat har daitezkeen adjektibo batzuk (esate baterako, *isila*, *ona*, *maitagarria*, *txikia*), hitzen maiztasun hori ugaria ez bada ere. Ez da gauza bera gertatzen gizonezko pertsonaien kasuan, zeinetan rol berriei lotutako adjektiboak adierazten diren (besteak beste, *zahar*, *despistatu*, *serio*, *marisukalde*, *beldurti*, *kezkatsu*).

Ipuin hezkidetzailleak eta ipuin tradizionalak alderatzen baditugu, adierazpen sexistak gutxitu direla ondorioztatu da, pertsonaien deskribapenetan eta baita ere

eredu berria agertu dela, pertsonaia maskulinoetan. Baina datu gehiago (hau da, corpus handiagoa) beharko litzateke ondorio sendoagoak aurkezteko.

Pertsonaien rolari dagokionez, ipuin tradizioaletan emakumearen pertsonaiak rol pasibotzat har daitezke ekintza gutxiago burutzen dituztelako, hau da, emakumeak *lagundu, jantzi, errukitu sentitzen* diren bitartean, gizonak *ohartu, hil, saiatu, aurkitu* eta *harrapatu* egiten dute, rol aktiboa. Hala ere, ipuin hezkidetzaileren kasuan ez da aurkitu aditz errepikapen adierazgarririk bata ala bestea ondorioztatzeko, seguruenik corpusaren tamaina dela eta.

Hala ere, lan honetan ipuin tradizional eta moderno zehatz batzuk aztertu dira eta, beraz, ondorio hauetan ipuin horien estiloaren deskribapenaren ondorioak besterik ez dira aipatzen. Hori dela eta, lan honetan ipuinetan erabilitako hizkuntzari dagokionez, adierazten diren ideiak egiaztatzeko ipuin gehiago edo ipuin bildumak aztertu beharko lirateke, ezin baitira beste ipuin tradizional eta modernoetara ondorio hauetan adierazitako hizkuntza ezaugarri guztiak, beste ipuinen hizkuntzetara orokortu. Hori egiteko, ordea, arazo handiena da ipuinak ezin direla modu digitalean eskuratu.

Etorkizunean corpus handiagoak modu digitalean lortzen badira, lan honetan jasotako ondorioak konproba daitezke edo beste batzuk atera. Izan ere, Hizkuntzaren Prozesamendu ANALHITZA programak behaketa prozesua erraztu duen arren, lan honen zailtasun handiena corpus osoa transkribatzen emandako denbora izan da.

Bibliografia³¹

- Almagia, Karolina. (2009). La transmisión de los valores en los cuentos. *Emakunde*, (75), 18-21.
- Alvarez Uria, Amaia. (2004). Euskara hizkuntza sexista al da? *Erabili*. Hemendik berreskuratua: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1078235452/
- Barquín, Amelia. (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: Emakunde
- Colomer, Teresa. & Olid, Isabel. (2009). Princesitas con tatuaje: las nuevas caras del sexismo en la ficción juvenil. *Textos de didáctica de la lengua y de la literatura*. *Bartzelona: Editorial Graó*, 14(51), 55-67.
- Colomer, Teresa. (2001). La enseñanza de la literatura como construcción de sentido. *Lectura y Vida, Revista Latinoamericana de Lectura*, 22(1), 6-23.
- De Sousa Silva, Simone Silene (2012). *Los valores en las narraciones infantiles y juveniles escritas en castellano y publicadas entre los años 2000-2007*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia. Tesi argitaragabea.
- Eusko jaurlaritzaren Hezkuntza, hizkuntz politika eta kultura saila (2016). *Genero-ikuspegia curriculumean eta araubide bereziko eta lanbide heziketako ikasketetako irakaskuntza-jardueretan txertatzeko gidaliburua: Lanerako Prestakuntza eta Orientabiderako (FOL) eta Enpresa eta Ekimen Sortzailerako (EES) proposamen zehatzak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua (2010). *Haur Hezkuntzarako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako dekretu curricularrak Euskal Autonomia Erkidegoan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Gabiria, J. (2009). Haur literaturako rola eta gizarte. *Emakunde*, (75), 12-15.
- Garralón, Ana. (2004). Literatura con valores. Hemendik berreskuratua: http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/literatura-con-valores-0/html/fff72c62-82b1-11df-acc7-002185ce6064_2.html
- Imaz, Virginia. (2009). Lo que cuentan los cuentos. *Emakunde*, (75), 22-25.

³¹ Emakumeen lana ikustarazi eta omentzeko helburupean bibliografia honetan emakumezkoak diren egileen izen osoak idatziko dira.

- Lasarte Leonet, Gema. (2014). Irakurketa ohiturak literatur sisteman: generoa diagnostikatzeko eremu interesgarria. *Tantak*, 25(1).
- Orquín, Felicidad (1989). La nueva imagen de la mujer. *CLIJ: Cuadernos de literatura infantil y juvenil*, 2 (11), 14-19.
- Rincón, Ana. (1988). Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak. *Emakunde: Gazteiz*.
- Van Dijk (2002). Conocimiento, elaboración del discurso y educación. Hemendik berreskuratua: www.discursos.org/
- Villegas, Marta, Bel, Nuria, Gonzalo, C., Moreno, Amparo, & Simelio, Nuria (2012). Using Language Resources in Humanities research. *LREC* (3284-3288). Hemendik berreskuratua: <http://dblp.uni-trier.de/db/conf/lrec/lrec2012.html#VillegasBGMS12>
- Vintró, Montserrat (2008). Sexismo en la literatura infantil. *CLIJ: Cuadernos de literatura infantil y juvenil*. 21(217), 21-27.

Eranskinak

1. Eranskina: Ipuinen corpora

Eranskinetako atal honetan aztertutako ipuinen corpora aurkezten da liburutegietan erabiltzen den etiketa formatuarekin haien inguruko ezaugarri guztiak ikusgarri egon daitezen³².

Ipuin tradizional eta protagonistak emakumeak

- Loti Ederra

Izenburua: 12 ipuin klasiko / irudiak, Carlos Busquets

Argitaratzailea: Madrid : Susaeta, 2007

Deskripzio fisikoa: 1 libk. (ask. or.) : kol. ir. ; 30 cm

Oharrak: 0-4 urte

- Txanogorritxo

Izenburua: 12 ipuin klasiko / irudiak, Carlos Busquets

Argitaratzailea: Madrid : Susaeta, 2007

Deskripzio fisikoa: 1 libk. (ask. or.) : kol. ir. ; 30 cm

Oharrak: 0-4 urte

- Mari Errauskin

Izenburua: 12 ipuin klasiko / irudiak, Carlos Busquets

Argitaratzailea: Madrid : Susaeta, 2007

Deskripzio fisikoa: 1 libk. (ask. or.) : kol. ir. ; 30 cm

Oharrak: 0-4 urte

³² Badaude ipuin klasikoen kasuan liburutetatik transkribatuak izan ez diren ipuin batzuk. Kasu hauetan, bideo edo blog batzuetatik transkribatuak izan dira. Hala ere, ipuin hauen iturrira joateko informazio eta lotura guztiak eskuragarri uzten dira edonork kontsulta dezan.

- Eburnezuri

Izenburua: 12 ipuin klasiko / irudiak, Carlos Busquets

Argitaratzailea: Madrid : Susaeta, 2007

Deskripzio fisikoa: 1 libk. (ask. or.) : kol. ir. ; 30 cm

Oharrak: 0-4 urte

- Sirenatxoa.

Hemendik berreskuratua:

<https://www.youtube.com/watch?v=rx74MsdLMA8&feature=youtu.be>

Ipuin tradizional eta protagonistak gizonak

- Erpurutxo

Izenburua: 12 ipuin klasiko / irudiak, Carlos Busquets

Argitaratzailea: Madrid : Susaeta, 2007

Deskripzio fisikoa: 1 libk. (ask. or.) : kol. ir. ; 30 cm

Oharrak: 0-4 urte

- Peter Pan

Izenburua: 12 ipuin klasiko / irudiak, Carlos Busquets

Argitaratzailea: Madrid : Susaeta, 2007

Deskripzio fisikoa: 1 libk. (ask. or.) : kol. ir. ; 30 cm

Oharrak: 0-4 urte

- Hamelingo txirularia

Hemendik berreskuratua:

<https://www.youtube.com/watch?v=jBSZzdRUAkM>

- Jostungo ausarta

Hemendik berreskuratua:

<http://haixeder.blogspot.com.es/2014/08/el-sastrecillo-valiente-jostuntxo.html>

- Berunezko soldadutxoa

Hemendik berreskuratua:

<https://www.youtube.com/watch?v=RIKuFhb-B8A>

Ipuin hezkidatzaileak eta protagonistak emakumeak

- Zer izango naiz handitan?

Egilea: Alzola, Yolanda (1970-)

Izenburua: Zer izango naiz handitan? / Yolanda Alzola

Argitaratzailea: [Euba] : Ibaizabal, [2007]

Deskripzio fisikoa: 23 or. : kol. ir. ; 23 cm

Bilduma: Oker ; 3

Oharrak: 5 urtetik aurrera

- Nire aita etxeakoandrea da, eta zer?

Egilea: Ugidos, Silvia

Izenburua: Nire aita etxeakoandrea da / testua, Silvia Ugidos ; marrazkiak, Mikel Valverde ; [itzulpena, Joxan Ormazabal]

Argitalpena: 4. argit

Argitaratzailea: Donostia : Elkarlanean, 2010

Deskripzio fisikoa: 31 or. : kol. ir. ; 21 cm

Bilduma: Eta zer? ; 4

Oharrak: 8 urtetik aurrera

- Aita despistatu bat

Egilea: Gregori, Josep (1959-)

Izenburua: Aita despistatu bat / testua, Josep Gregori ; marrazkiak, Rosa Anna Crespo, Enric Soler ; [itzulpena, J. Ormazabal]

Argitalpena: 3. argit

Argitaratzailea: Donostia : Elkar, 2005

Deskripzio fisikoa: 23 or. : ir. ; 19 cm

Bilduma: Zazpi ; 5

Oharrak: 5 urtetik aurrera. Jat. izenb.: Un pare despistat

- Mari Joseri zergatik deitzen diote Joxe Mari?

Egilea: Calleja, Seve

Izenburua: Mari Joseri zergatik deitzen diote Joxe Mari? / testua Seve Calleja ; marrazkiak Cristina Losantos ; [itzulpena J. Ormazabal]

Argitalpena: 3. argit

Argitaratzailea: Donostia : Elkar, 2010

Deskripzio fisikoa: 23 p.

Bilduma: Zazpi ; 9

Oharrak: 6 urtetik aurrera

- Hamaika andere ausart

Egilea: González Barreiro, Xosé M. (1960-)

Izenburua: Hamaika andere ausart / Oli ; [irudiak], Helle Thomassen ; [euskarazko itzulpena, Koldo Izagirre]

Argitaratzailea: Pontevedra : Kalandraka, 2001

Deskripzio fisikoa: [24] or. : kol. ir. ; 23 cm

Bilduma: Amets egiteko liburuak

Oharrak: 0-4 urte. Jat. izenb.: Once damas atrevidas

Ipuin hezkidatzaileak eta protagonistak gizonak

- Hau al da benetako giza bidea?

Egilea: Curtis, Jamie Lee (1958-)

Izenburua: Hau al da benetako giza bidea? / testua, Jamie Lee Curtis ; irudiak, Laura Cornell ; [itzulpena Inazio Mujika Iraola]

Argitaratzailea: Irun : Alberdania, 2007

Deskripzio fisikoa: [32] or. : ir. kol. ; 23 cm

Oharrak: 5 urtetik aurrera.

- Puff!! Hau nazka!

Egilea: Casallerrey, Fina (1951-)

Izenburua: Puf! Hau nazka! / testua, Fina Casallerrey ; marrazkiak, Xan López Domínguez ; [itzulpena sic , J. Ormazabal]

Argitaratzailea: Donostia : Elkarlanean, 2001

Deskripzio fisikoa: 23 or. : kol. ir ; 19 cm

Bilduma: Zazpi ; 8

Oharrak: 6 urtetik aurrera

- Jonas eta hozkailu beldurtia

Egilea: Igerabide, Juan Kruz (1956-)

Izenburua: Jonas eta hozkailu beldurtia / Juan Kruz Igerabide ; marrazkiak, Mikel Valverde

Argitalpena: 8. argit

Argitaratzailea: Bilbo : Aizkorri, L.G. 2010

Deskripzio fisikoa: 34 or. : kol. ir. ; 21 cm

Bilduma: Irakurri, bizi

Oharrak: 5 urtetik aurrera eta Haur literaturako Euskadi Saria 1999

- Nork laguntzen du etxean?

Egilea: Alcántara, Ricardo (1946-)

Izenburua: Nork laguntzen du etxean? / Ricardo Alcántara ; irudiak, Gusti ; itzultzailea, Ana Mallen

Argitaratzailea: Sondika : Edelvives, 1990

Deskripzio fisikoa: 47 or. : kol. ir. ; 18 cm

Bilduma: Ala delta. Gorria ; 24

Oharrak: 5 urtetik aurrera

- Aitona maitea

Egilea: Abeyà, Elisabet (1951-)

Izenburua: Aitona maitea / egilea, Elisabet Abeyà ; euskaratzailea, J. Ormazabal ; marrazkiak, Roser Capdevila

Argitaratzailea: Donostia : Elkar, 2008

Deskripzio fisikoa: [24] or. : kol. ir. ; 19 cm

Bilduma: Sirena ; 21

Oharrak: 5 urtetik aurrera. Letra larria

2. Eranskina: Aditz eta adjektiboen zerrenda sexista

Emakumeak	Gizonak
Aditzak	Aditzak
(Argitzen) Lagundu	Akabatu
Agindua bete (ez betetzerakoan geroko eskarmentua)	Aginduak eman
Agindua bete (gaiztoa denean)	Arazoak konpondu
Apurtu/Hondu	Argitu (irtenbidea bilatu)
Arazoetan sartu / Arazoak sortu	Arriskuak hartu / Arriskatu
Behartu (gaiztoa denean)	Askatu
Erosi / Erosketak egin	Ideiak izan / Asmatu
Erratza pasatu	Aurkitu
Errukitu sentitu	Babestu
Etxean geratu	Berpiztu edo esnatu
Etxeke lanak egin	Borrokatu
Ezkondut	Defendatu
Galduak sentitu	Egin (ekintzak burutu)
Garbitu	Ehizatu
Haurrak hezi	Erabakiak hartu / Erabaki
Hitz egin	Eraman (norbait berarekin eraman)
Ihes egin	Gainditu
Ilea erraztu	Garaitu
Izutu	Harrapatu
Janaria prestatu/egin	Hil
Jarraitu	Irabazi
Jaten eman	Jakin
Josi	Jo
Konbentzitu (sorginak)	Konpondu
Korapilatu	Lan egin
Lo egin	Lehiatu
Mahaia jaso	Muxu eman
Mahaia zerbitzatu	Pentsatu
Maitemindu	Salbatu
Mirariak egin	Uxatu
Negar egin	

Oihukatu / Garrasi egin	
Txukundu	
Zaindu	
Zigortu	
Adjektiboak	Adjektiboak
Alaia	Abenturazalea
Ameslaria	Aberatsa
Atsegina	Aktiboa
Bekaiztia / Jeloskorra	Alaia
Beldurtia	Ameslaria
Berekoa	Argia (inteligentea)
Berritsua	Arrakastatsu
Bikaina edo perfekta	Arriskuzalea
Boteretsua (gaiztoa denean)	Askatzailea
Delikatua	Atsegina
Desobedientea	Ausarta / Adoretsua
Disponiblea (laguntzeko prest)	Autonomoa
Dotorea	Azkarra
Ederra	Bakartia
Erakargarria	Bihozbera
Eribera	Bihurria
Erne / Adi	Bizkorra
Errespetuz betea	Boteretsua
Eskuzabala	Dibertigarriak
Gaiztoa, maltzurra	Diruduna
Garbia	Ederra (itxura ederrekoak)
Gaztea	Ekintzailea
Gezurtia	Errespetuz betea
Gozoa	Eskuzabala
Harroa	Gizalegetsua edo adeitsua
Inozoa	Handia
Isila	Indartsua
Itsusia	Independentea
Izutia	Intuitiboa
Jakin-nahia duena	Itxura onekoa
Kezkatua	Jakintsua

Koketa	Jatorra
Krudela	Kementsua
Laguntzailea	Langilea
Lasaia	Librea
Leuna	Marmartia
Lotsatia	Maiteminduta
Maitagarria	Nekaezina
Maiteminduta	Oldarkorra
Obedientea	Onbera
Oldarkorra	Ospetsua
Ona	Piadosoa
Pasiboa	Salbatzailea
Pinpirina	Segurua
Polita	Solidarioa
	Tituluduna
Salatzailea edo traidorea	Traketsa (ipotxak)
Samurra	Trebea
Sentibera	Umila
Txikia	Xarmangarria
Txukuna eta langilea	
Umila	
Zaharra	
Zintzoa	

21. Taula: Aditz eta adjektiboen zerrenda sexista.